*2. artikulua.*– Dolu-egunetan, Euskal Autonomia Erkidegoko bandera ofizialak haga-erdira jaitsita egongo dira. Halaber, ikur ofizialetan krespoi betzak erantsiko dira.

*3. artikulua.*– 1.– Fernando Buesa Blanco jaun txit gorenaren gorpuari zor zaizkion goi-mailako hileta-ohoreak egingo zaizkio.

2.– Hiletak Eusko Legebiltzarraren egoitzan egingo dira. Ertzaintzako kideek egingo dute haren aldeko ohorezko goardia, hiletetan krespoi beltzezko besokoa daramatela.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau izenpetzen den unetik aurrera jarriko da indarrean, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko otsailaren 22an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

*Artículo 2.*– Durante los días de luto las banderas oficiales en la Comunidad Autónoma del País Vasco ondearán a media asta. Asimismo, se prenderán crespones negros en las enseñas de igual naturaleza.

*Artículo 3.*– 1.– Se rendirán a los restos mortales del Excmo. Sr. D. Fernando Buesa Blanco los honores fúnebres que en su alta condición le corresponden.

2.– Las honras fúnebres tendrán lugar en la sede del Parlamento Vasco y su guardia de honor será prestada por la Ertzaintza, que lucirá, durante las citadas honras fúnebres, un brazal de crespón negro.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde la fecha de la firma y será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## HERRIZAINGO SAILA

## Zk-830

25/2000 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen araudia bigarrenez aldatzen duena.

Europako 1103/97 eta 974/98 Erregelamenduen babesean, euroa txanpon bakar gisa ezartzeak; eta bai erregelamendu horiek garatzeko, euroa sartzeari buruzko 46/1998 Legeak —abenduaren 17an eman zenak— ere, beharrezko egiten dute Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen araudian aurreikusitako txanpon-unitateak egokitzeko araudi-neurriak ezartzea. Aipatu araudia abenduaren 24ko 308/1996 Dekretuaren bitartez onetsi zen, eta azaroaren 11ko 252/1997 Dekretuaren bitartez aldatu zen. Halaber, beharrezkoa da behar diren xedapen gehigarriak ezartzea, egungo makinak txanpon bakarrari egokitzeko.

Bestalde, joko-makinen azpisektorean izandako eskarmentua dela-eta, beharrezkoa da joko-makinei buruzko aipatu araudiaren 44. artikuluan aurreikusitako instalazio-baimenari egitura zabalagoa ematea, establezimenduko titularraren eta enpresa operatzailearen titularraren arteko harremanari egonkortasun handiagoa emateko hain zuzen ere.

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

## N°-830

DECRETO 25/2000, de 8 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La implantación del euro como moneda única, al amparo de los Reglamentos Comunitarios números 1103/97 y 974/98, y en su desarrollo la Ley 46/1998, de 17 de diciembre sobre introducción del euro, hace preciso establecer medidas reglamentarias de adaptación de las unidades monetarias contempladas en el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por el Decreto 308/1996, de 24 de diciembre, modificado por el Decreto 252/1997, de 11 de noviembre. Asimismo, es necesario establecer las Disposiciones Adicionales necesarias, a fin de facilitar la adaptación de las máquinas actuales a la moneda única.

Por otra parte, la experiencia acumulada en el subsector de máquinas de juego hace preciso dotar a la autorización de instalación prevista en el artículo 44 del mencionado Reglamento de máquinas de juego, de una configuración más amplia al objeto de promover de una mayor estabilidad a la relación entre el titular del establecimiento y la empresa operadora.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, eta Jokoaren Euskal Kontseiluak txostena egin duelarik, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa alde dela, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak, eta 2000ko otsailaren 8an egindako bileran, eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–*

Euskadiko Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen araudiko 8. a), b) eta k); 10. a) eta 44.2 artikuluak aldatzea; honako hau da izango da euren testua:

A) 8. a), b) eta k) artikulua

«a) Partidaren prezioa ez da izango 25 pezetatik edo euro baten 20 zentimotik gorakoa.»

«b) Makinak eman dezakeen sari edo irabazi handiena ez da izango partidaren gehienezko prezioaren 600 halako baino handiagoa; jokoaren programan ezin daiteke egon (gehienezko balio honetatik gorako batuketa egiten duten sarien artean) inolako erlazio sistematikorik ezta aurretiaz ezarritakorik ere.»

«k) Jokorako aretoetan, partidaren prezioaren 1.200 halako den saria ematen duten «B» motako makinak jarri ahal izango dira. Makina hauek, «B» motako gainontzekoetarik argi eta barki diferentziatu beharko dira, eta aurreko aldeko gainazalean «joko-aretoetako makina berezia» esaldia beharko dute eduki idatzita. Jokorako lokal hauetan, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimena emanda, «B» motako makinak elkarrekin konektatu ahal izango dira. Elkarrekin konektaturiko makinen bitartez, kontzeptu guztiak batuta lor daitekeen sariak ez du gainditu behar 450.000 pezetako edo 2.700 euroko gehienezko muga. Halaber, erabiltzaileak uneoro ikusteko moduan, agerian egon beharko du: elkarrekin konektaturiko makinen bitartez pilaturiko zenbatekoa.»

B) 10 a) artikulua

«a) Apustuaren gehienezko balioa 1000 pezetakoa edo 6 eurokoa izango da. Legez korritzen duen diruaren ordez fitxak erabiltzea baimendu dezake Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, betiere diruaren funtzio beretarako erabiliz gero, eta berme berak badituzte, hots, diruarenak.»

C) 44.2 artikulua

«Instalazio-baimenaren iraupena: establezimenduko titularrak eta enpresa operatzaileak libreki erabakitzen dutena izango da, baina ezingo da izan ez hiru urte baino laburragoa, ez eta sei urte baino luzeagoa ere. Betiere, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, adostutako

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de febrero de 2000,

DISPONGO:

*Artículo único.–*

Se modifican los artículos 8. a), b) y k); 10. a) y 44.2 del Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco, quedando redactados del siguiente modo:

A) Artículo 8. a), b) y k)

«a) El precio de cada partida no podrá ser superior a 25 pesetas o 20 céntimos de euro.»

«b) El premio o ganancia de mayor valor que la máquina pueda entregar no será superior a 600 veces el precio máximo de la partida, sin que pueda existir relación sistemática y predeterminada en el programa de juego entre premios cuya suma supere este valor máximo.»

«k) En los salones de juego podrán instalarse máquinas de tipo «B» que concedan premio por un importe máximo de 1.200 veces el precio máximo de la partida. Estas máquinas deberán estar claramente diferenciadas de las demás de tipo «B», debiendo constar en su superficie frontal la expresión «máquina especial para salón de juego». En estos locales de juego, previa autorización de la Dirección de Juego y Espectáculos, podrán interconectarse máquinas de tipo «B». El importe máximo del premio que pueda conseguirse por todos los conceptos a través de las máquinas interconectadas no podrá ser superior al resultado de sumar el premio máximo de cada una de las máquinas interconectadas, con un límite máximo de 450.000 pesetas o 2.700 euros. En cada máquina interconectada se hará constar de forma claramente visible esta circunstancia. Asimismo, deberá ser visible para cada usuario el importe acumulado en cada momento por el conjunto de las máquinas interconectadas.»

B) Artículo 10 a)

«a) El valor máximo de la apuesta será de 1.000 pesetas o 6 euros. Podrá autorizarse por la Dirección de Juego y Espectáculos la utilización de fichas que sustituyan al dinero de curso legal, siempre que realicen sus mismas funciones y ofrezcan las mismas garantías que éste.»

C) Artículo 44.2

«El período de vigencia de la autorización de instalación será el que libremente acuerden el titular del establecimiento y la empresa operadora, sin que pueda ser inferior a tres años ni superior a seis, debiendo la Dirección de Juego y Espectáculos diligenciar la autori-

epearekin, diligentziatu beharko du instalazio-baimena, hala baliagarria izan dadin. Instalazio-baimena indarrik gabe utzi ahal izango da, alde bietariko batek, baliagarritasunaren mugaeguna baino bi hilabete lehenago, denuntziatzen badu. Halakorik egiten ez bada, instalatzeko baimena berriztaturik geratuko da, lehendik eman zen moduko beste epe baterako hain zuzen.»

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–*

1.– Dekretu hau indarrean sartzen denetik, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako, fabrikatzaile edo inportatzaileek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari eskatu ahal izango diote, B eta C motako makinen eta makina laguntzaileen modeloak baliozkotzeko; hain zuzen ere, egun horretatik aurrera eurotan ustiatu ahal izan ditzaten. Horretarako, ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

a) Makinaren aurreko aldearen argazki bat, eta bai makinaren parte guztiena ere, erabiltzaileentzat prezioei eta irabazte-planei buruzko informazioa ere jasotzen duena hain zuzen.

b) Joko-programa gordetzen duen memoriaren mikroprozesadorean modeloa edo haren aldakia homologatzeko erabakian ezarritako identifikazio-datuak aldatzen badira, aldaketa horien eta memoria berriaren aipamena, identifikazio-datu berriak eta guzti.

c) Fabrikatzaileak edo inportatzaileak emandako ziurtagiria, homologatzeko erabakian ezarritako joko-parametroak ez direla aldatu egiaztatzen duena; hartan, partidaren, apustuen eta gehienezko sariaren prezio berriak jaso beharko dira.

2.– Xedapen honetan aurreikusten diren makinen homologazioak baliozkotzeko prozesuari dagokionez, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak makina aurkezteko eskatu ahal izango die interesatuei; eta, baliozkotze hori emateko, makinen betekizun eta ezaugarriei buruz beharrezko jotzen duen beste edozein agiri osagarri ere.

3.– Aurreko prozeduraren arabera baliozkotu ez diren makinak, ustiapenetik erretiratu beharko dira, aldaketa egiteko zehazten den epe-muga baino lehen, abenduaren 17ko 46/1998 Legeak ezarritakoa betez.

*Bigarrena.–*

1.– Abenduaren 7ko 46/1998 Legean eurora egokitzeko aurreikusi ziren aldi ezberdinetan zehar, ustiapenak izango dituen ondorioetarako, dekretu hau indarrean sartzen denetik eta baita gero ere, homolagatu ahal izango dira B eta C motako makinak eta makina laguntzaileak; betiere, irabazte-planetan adierazten diren sariak, partidaren prezioaren multiploak badira, eta makinek pezetetan, eurotan edo bi txanponetan —al-

zación de instalación con el período acordado, a los efectos de su validez. La autorización de instalación podrá dejarse sin efecto por cualquiera de las partes si denuncian su validez dos meses antes de su vencimiento. De no ser así, la autorización de instalación se entenderá prorrogada por el mismo plazo que hubiere sido concertada.»

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–*

1.– A partir de la entrada en vigor del presente Decreto, y con efectos desde el 1 de enero del año 2002, los fabricantes o importadores podrán solicitar ante la Dirección de Juego y Espectáculos la convalidación de las homologaciones de modelos de máquinas de juego de tipo B, C y auxiliares a fin de su explotación en euros a partir de dicha fecha. Para ello, deberán incluir la siguiente documentación:

a) Fotografía nítida del frontal de la máquina, así como de todas las partes de la máquina donde conste información al usuario sobre precios y planes de ganancias.

b) En caso de cambio en los datos de identificación del microprocesador de la memoria que almacena el programa de juego, establecidos en la resolución de homologación del modelo o versión del mismo, relación de las modificaciones y nueva memoria con sus datos de identificación.

c) Certificado del fabricante o importador relativo a la no modificación de los parámetros de juego establecidos en la resolución de homologación, especificando los nuevos precios de partida, apuestas y premio máximo.

2.– En relación con el proceso de convalidación de las homologaciones de máquinas a que se refiere esta Disposición, la Dirección de Juego y Espectáculos podrá solicitar de los interesados la presentación de la máquina, así como cualquier otra documentación complementaria, relativa a la comprobación de requisitos y características de las máquinas, que se considere precisa a los efectos de dicha convalidación.

3.– Las máquinas que no se hubieran convalidado conforme al procedimiento anterior, deberán ser dejadas fuera de explotación en la fecha límite que se determine para el período de canje, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 46/1998, de 17 de diciembre.

*Segunda.–*

1.– A partir de la entrada en vigor del presente Decreto y a los efectos de su explotación durante los diferentes períodos de adaptación al euro contemplados en la Ley 46/1998, de 7 de diciembre, así como posteriormente, podrán homologarse máquinas de juego de tipo B, C y auxiliares cuyos planes de ganancias expresen los premios exclusivamente como múltiplos del precio de la partida y que incorporen los dispositivos téc-

dian aldikoan— ustiatzeko behar diren gailu teknikoak baldin badituzte. Horretarako, homologazio eskariarekin batera aurkeztu beharreko agirietan, gailu tekniko horiei dagozkienak ere aurkeztu beharko dira.

Makina-modelo horiek homologatzeko ez da eskatuko dekretu honetan eskatzen den baliozkotzea.

2.– Halaber, joko-makinen, makina laguntzaileen eta jokorako beste instalazio eta sistema batzuen modeloak, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera ustiatzen hasteko, homologatu ahal izango dira.

*Hirugarrena.–*

Betiere, baliozkotze eta homologazio prozesu guztietan honako hauek eskatuko dira:

a) Partidaren prezioa edo apustuen prezioa, makinan azalduta egotea, eta partida edo apustua egiteko erabili den txanpon berdinarekin ordaintzea sariak.

b) Makinaren informazioak, erabiltzaileak irabazien planak ulertuko dituela bermatzea.

*Laugarrena.–*

Eurora egokitzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legean ezarritakoari egokitu beharko zaizkio: Euskadiko Autonomia Erkidegoan indarra duen araudian jasotako «A» motako makinak eta jokorako sistemak eta instalazioak; bestela, ustiapenetik erretiratu beharko dira.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartu baino lehen emandako instalazio-baimenak, baliagarriak izango dira, egin ziren egunean eman zitzaien epea iragan arte. Baimen horien luzamenduek hiru urteko epea izango dute, bitartean beste baimen bat ematen ez bada; epe hori amaitzen denean, baimenak iraungi direla ulertuko da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrerako hilabeteko epearen barruan jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko otsailaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

nicos que permitan su explotación en pesetas, euros o ambas monedas, según el período de que se trate. A estos efectos, entre la documentación que acompañe a la solicitud de homologación deberá incluirse la correspondiente a dichos dispositivos técnicos.

La homologación de estos modelos de máquinas no precisará de la convalidación exigida en el presente Decreto.

2.– Igualmente, podrán homologarse modelos de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego, para su puesta en explotación a partir del 1 de enero del año 2002.

*Tercera.–*

En todo caso, en los procedimientos de convalidación y homologación se exigirá lo siguiente:

a) Que el precio de la partida o de las apuestas esté reseñado en la máquina y que los pagos de premios se realicen en el mismo tipo de moneda con que se haya formalizado la partida o la apuesta.

b) Que la información de la máquina garantice la comprensión de los planes de ganancias al usuario.

*Cuarta.–*

Las máquinas de tipo «A» y los sistemas e instalaciones de juego contempladas en el vigente Reglamento de máquinas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberán adaptarse a lo establecido en la Ley 46/1998, de 17 de diciembre, sobre adaptación al euro, o ser dejadas fuera de explotación.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las autorizaciones de instalación formalizadas con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto, serán válidas hasta el vencimiento del plazo por el que se hubieren suscrito. Las prórrogas de dichas autorizaciones, salvo que se extienda una nueva autorización, se realizarán por un único plazo de tres años, a cuya finalización se considerarán extinguidas.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.